

800 ikasletik gora aritu dira bertsogintza lantzen eskola ordutan

Gu ere bertsolari programaren baitan, zortzi ikastetxetan zehar bertsolaritza lantzen aritu dira Oihane Perea, Uxue Diaz de Cerio eta Iñaki Viñaspre. Umeez bertsoekin jolasteko aukera izan dute eta bertsoei ekinez, gozatzen eta euskararekin jolasten ikasi dute. Oso balorazio positiboak jaso ditugu haur zein irakasleengandik.

Azken urteetan beste elkarte eta euskara eragile askok ere euren babesa adierazi diote gure proiektuari.

GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren Curriculuma" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.**



Gasteizko bertso-eskola

GASTEIZ

GASTEIZKO BERTSO-ESKOLA AMAIA ZENTROAN

-Gaztetoak: Astelehenetan (18:00-19:30)

Irakaslea: Iñaki Viñaspre

-Gazteak: Ostegunetan (18:00-19:30), Iñaki Viñaspre

-Helduak: BERTSOAREN SALTZAN (19:00-20:30)

ALDE ZAHARREKO BERTSO-ESKOLA

Ostiraletan (18:00-19:00), Irakaslea: Ruben Sanchez

XAGUMENDI BERTSO-ESKOLA

Ostiraletan (19:00-20:00) Judimendiko Auzo Elkarte

Irakasleak: Maite Solozabal eta Maialen Saez de Okariz

BERTXILIKA BERTSO-ESKOLA

Astelehen, ostegun eta ostiraletan (14:00-15:00)

Armentia Ikastolan.

Irakasleak: Uxue Ruiz de Arkaute, Iñaki Viñaspre, Unai Olalde eta Uxue Diaz de Cerio

Zatoz bertso-eskolara!

BERTXORAKERIKETA

11:30 Zozketa
Amaian

12:00 Dueloak
tabernetatik

14:00 Bazkaria

16:00 Finala

Landatxon

IZENA EMATEKO BIDALI EMAILA
araba.sustapena@bertsozale.com



URRIAK
27

Gasteizko bertso eskolan zure zain gaude, bertso eskola batean parte hartzeko edo talde berri bat egiteko jarri gurekin harremanetan.

Bertxoko sariketa

Aurtengoan Bertxokok, urtero lez, sorpresa txikiz josia etorri da, oholtza gaineko saioak izan dira Arabako gaztetxe ezberdinetan. Bertxoko sariketako finala Gasteizen ikusteko plazerra izan genuen, Gasteizko gaztetxean izan genituen sei bertsolari kantuan: Xabi Igoa, Asier Azpiroz, Ane Labaka, Ander Solozabal, Izar Mendiguren eta Pello Ormazabal, Maialen Kortabariaren esanetara.

Gaztetxera hurbildu ziren 200 entzuleentzat oso saio erakargarria egin zuten. Peio Ormazabalek hasieratik erakutsi zuen bere abilitatea eta aurtengo txapelduana izendatu zuten epaileek. Pena txapela ez zela etxera etorri, Arrigorriagara joan zen Peioren burura berriz ere.

Hurrengoan hobe!

***Bertxoko sariketan Euskal Herri osoko bertsolari gazteek hartzen dute parte. Ariketa arruntak eta bereziak nahasten*



Arabako Bertsolari Txapelketa 2013

Arabako Bertsolari Txapelketa inoiz baino indar gehiagorekin pasa da. Inoiz baino bertsolari gehiago, 51 bertsolari, inoiz baino gai jartzaile gehiago, finkatzen doan epaile talde batekin eta bere zain zegoen arabar bertsozale fidelekin.

Oihane Pereari lotu zaio txapela. Printzipal aretoa bete-bete, 700 entzuleren txalo eta algara artean ospatu da Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Oihane Perearen atzetik (616p), Manex Agirre (606p), Iñaki



Viñaspre (411p), Asier Otamendi (410,5p), Ruben Sanchez (371,5p) eta Jagoba Apaolaza (341p) geratu dira, hurrenez hurren.

Zorionak Oihane!

Hurrengo urtean Kuadrilla ArtekoA izango dugu, beste bi urte itxaron beharko dugu txapelketaz gozatzeko!!

Eskolartekoa 2013



Aurten ezberdin heldu zen eskolartekoa guregana. Txikien mailan (14 urtetik beherakoan) umeek taldeka eta lehiatu gabe kantatzea erabaki baitzen. Eurek erabakiko zuten aurrera egin edo ez.

Dena, baina, ez da ezberdin edo berria izan. 14-18 urte bitartekoetan banaka lehiatu dira bertsolariak eta kanporaketa eta finala izan dituzte aurrean.

Bertso sorten lehiaketa ere egon zen, aurten lehiarik gabeko festa eran burutu bazen ere.

Gasteizko eskolarteko topaketan, sortetan 6 talde aritu ziren. Bat batean 5 talde lehiatu ziren eta handietan Gasteizko bertsoeskolako eta Murgiaiko bertso eskoletako kideak aritu ziren. Handietan Maddalen Arrausi eta Iñaki Tena sailkatu ziren.



Legution izan zen Arabako Eskolarteko Topaketa. Arabako bertso eskola ezberdinetako kideek parte hartu zuten eta egun osoko festa gozatzeko aukera izan genuen.

Goizean hamalau urtetik beherakoen txanda izan zen. Sorta ederrak abestu zituzten eta bertsoan ere ale politak joan ziren. Bazkalaurretik poteoa egin genuen bertsoz bertso eta tabernaz taberna (eskolarteko zein ez eskolarteko adina izan).

Elkarrekin bazkaldu eta gero gazteen txanda heldu zen. Sortak maraka, gitarra, triki eta abarrekin eta bat batekoak fin. Denentzako saria egon arren, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketarako txartela eskuratu zutenak: Peru Abarrategi (txapelduna) eta Iñaki Tena (txapeldunordea) izan ziren. Guztientzat ere gure txalo handiena:



Zatoz Arabako bertsolariak animatzera Euskal Herriko Eskolarteko txapelketara!!

Orion Ekainaren 22an izango da

gora ZUEK!!!

BERTSOAK DENONTZAKO !

Aurten hamaika saio burutu dira gure hirian. Afariak, jaialdiak, tramak, bertso musikatuak, ikastaroak...

BERTSO SAIOAK GASTEIZEN (lagin txiki bat)

- 2012/10/27: Bertso eskolek 30 urte, 11 ordu bertsoan.
- 2012/11/21 eta 29: de repente... bertsoa! Jardunaldiak.
- 2013/01/22: Bertso tavern. Bertsoak musika
- 2013/03/07: Bertso-Korrika jaialdia
- 2013/03/16: Arabako Bertsolari Txapelketako finala.
- 2013/04/10: Hamaika kantatzeko. Ipuinak bertsoan
- 2013/04/13: Izan gai jartzaile. Ikastaroa
- 2013/05/10: Arabako eskolartekoa. Gasteizkoa
- 2013/05/29: Bertso eskolek 11 opari. Bertso saioa



Udan ireki belarriak!

Lasai! Udan ez zaituztegu bertso egarriz utziko. Beroarekin errimak aktibatzen zaizkigu eta ez da faltako zer gozatua: poteoak, bertso-terrazza, afari,jaialdi... .

**IREKI ZUEN
BELARRIAK!!**



GASTEIZKO JAIAK 13:30etan Matxeten

2013/08/05: Jon Maia, Igor Elortza eta Josu Goikoetxea
2013/08/06: Ruben Sanchez, Orlando Arreitunandia, Julio Soto, Andoni Egaña
2013/08/07: Zigor Enbeita, Irati Anda, Erika Lagoma, Sebastian Lizaso
2013/08/08: Felipe Zelaieta, Paula Amilburu, Jone Uria, Amets Arzallus, Arkaitz Estiballes
2013/08/09: Manex Agirre, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Alaia Martin

Arabako Bertso Eskolek 30 urte

Urteurrenaren ospatzeari hasiera eman genion Gasteizko Green kapital saria aitzakiazat hartuta, Bertso Berdeen landaketa eta bilketa egin genuen ekaina aldean. Eta ikasturte berriarekin batera urriaren 27an urteurrena ospatzeko jai bat burutu genuen. Egun osoko egitaraua prestatu genuen, lemak zioen bezala "30 urte, 11 ordu bertsoan" eta halaxe izan zen. irlandar doinuekin egiten dute inprobisazio saioa. Gustura betetzen dira halako jai giro epelean 30 urte!

Bertso eskolen 30.urteurrena goraiatu nahian "de repente... bertsoa" izeneko jardunaldiak ere antolatu genituen. Jendet-suak izan ziren, harrera ederra izan zuten eta adin tarte oso ezberdinetako lagunek parte hartu zutelarik. Sektore ezberdin askotako jende bertsozalea izan genuen bertan.

Jardunaldietatik goraipe daiteke Bertsolaritzak Araban euskararen Normalkuntza prozesuari eman eta jaso duena. Eta oraindik ere, eman eta jaso dezakeenaren inguruko gogoeta egin dugula. Adituen laguntzaz 30 urte hauen nolabaiteko balorazioa egin dugu eta aurrera begira indarrak non jarri behar ditugun pistak jaso ditugula edota pistak jasotzeko bideak zabaldu dizkigute. Baita ere, adituen, euskalgintzaren eta elkartearen ikuspegia elkartu eta elkar osatzeko baliagarriak izan dira, elkar igurtzia bultzatu da eta elkarlanerako konpromiso berriak hartzeko lagungarri izango delakoan gaude.



Gasteizko bertso-eskola
AMAIA ZENTROA
 Benito Perez Galdós z/g 01002 GASTEIZ
 Arduraduna: Iñaki Viñaspre
 Mug: 688695875
 e-posta: gasteizkobertsoeskola@yahoo.es

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
 tel: 945 010505
 e-posta: araba@bertsozale.com



www.arababertsozale.com
www.bertsozale.com
www.bertsoa.com